

# Gernika Gogoratuzeekin bakegintzako bidean

Marcel Amillategi / bgbiz

Lokarri sarea eta Roman Herzog Alemaniako presidente ohia saritu dau Gernika-Lumoko Udalak aurtengo Gernika Sariakin. Lizeo Antzokian sariak emoteaz aparte, Gernika Gogoratuze Elkarteak be omendu dau udalak bere 25. urteurrenean. Elkarte horretako zuzendaria dogu Maria Oianguren Idigoras (Gernika, 1966), bakegintza bidean bikitasunetik handitasunera pausuak ematen dabilena urte luzez.



Gernika-Lumoko Udalak banatu dau Bakearen eta Berradiskidetzaren aldeko aurtengo Gernika sariak. Lokarri eta Roman Herzog Alemaniako presidente ohia izan dira saridunak egindako lanagatik bakegintzan. Horretaz aparte, Gernika Gogoratuze Elkarteak be aipamen berezia jaso dau 25. urteurrenean. "Gernika-Lumo herriaren partetik horrelako errekonozimendua jasotzeak poztasun handia emoten deuzku" onartu dau Oianguren. "25 urteren ostean herriko errekonozimendua jasotzeak animoak ematen deuzku aurrera jarraitzeko gure bidean".

Gernika Gogoratuze Bakearen aldeko Ikerketa Zentroa da. Elkarteak Eusko

Legebiltzarrak sortu zuen 1987. urtean Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrenarekin batera. "Momentu horretan ikusi zen garrantzitsua zela memoriaren lana egitea bakearekin lotuta. Hau da, zer egin al da oroimen historikoa kontutan eukiteko eta aldi berien bakegintzaren alde ekimen konkretuak egiteko" gogoratzen dau Oianguren.

Geroztik, bide horretan buru belarri sartuta dabilta Oianguren eta taldea. "Orduan hasi ginen ikerketa, heziketa eta zabalkunde lanak egiten. Liburuak ere hasi ginen argitaratzen, jardunaldiak antolatzen, bakearen aldeko heziketa kurtsuak egiten ...".

## Oholtzan bakegintzako bi sarituekin

Sari banaketan beste bi protagonista esanguratsuekin konpartitu eban antzokiko oholtza. Sarituek bakegintzan eginiko lanaren inguruan lorak besterik ez daukoz gernikarrak. "Oso interesantea iruditzen zaigu herri honekiko Lokarri egindako ekarpena. Ez bakarrik azken aldi eginiko lanagatik, oinarritzko bakegintzaren alde jarraituko bideagatik baita ere. Uste dugu Lokarriren lana giza eskubideen alde eta bakegintzaren arloan garrantzia handia daukela".

Alemaniako presidente ohiak eginiko lana ere azpimarratzen da Oianguren. "Merezimendu osoa merezi daben pertsona da Roman Herzog. Bonbardaketan

“

“Bakea ez da hasten tratatu bat sinatzean”

“

“Gernika ikur bihurtzean beste herri bonbardatuak itzalean geratu dira”

“

“Izan, egon eta gogoratu aditzekin hausnartzen dogu”

“

“Arteak memoria praktikotasunean jar dezake”

“

“Memoria ez da bakarrik gogoratzeko, praktikoa izateko ere”

  
Lokarri

**elkarri**  




gertatutakoa onartzeaz gain biktimekiko solidaritatea agertu eban eta bere eskua zabaldu berradiskidetzera. Barkamen bezalako terminoak erabiltzie garrantzitsuek direz pausoz pauso joateko bakegintzan. Bakoitzak norbere papera ikusi behar dau prozesu baten eta zelan biolentzia salatu beharra dagoan giza eskubideen alde. Oso garrantzitsua izan zan berak emandako pausua eta eginiko onarpena”.

“Horrez gain, berak ere parte hartu ban geroago eginiko giza eskubideen aitortzaren gutuneko tratatu desberdinetan. Ez zuen bakarrik instituzional mailan eman

erantzuna, pertsonalki eta akademikoki ere bere ildo jarraitu eban giza eskubideen alde”.

[Donostian ikasle izatetik, egun Gernikan zuzendari izatera](#)

1991-1992 urte bitartean hasi zan Maria Oianguren Gernika Gogoratuz Elkarte lanean. “Sortu zan momentuan enuen izan sartzeko aukerarik. Halan da be banekien martxa jarri zutela zentroa”. “Hasiera baten filosofia eta dokumentazio eta bibliotekonomia ikasten nengoen Donostian. Orduan deitu zidaten hemen sortzeko ziren liburutegia martxan jartzeko. Horrela hasi nintzen. Hasiera batetik

interesatu zitzaidan proiektua. Gainera aukera itzela da hainbeste gaietaz aritzeko. Gehienbat etikaren esparrutik doazen gaiak sakon lantzeko aukera itzela eman zidan bakearen aldeko ikerketak. Beste gai asko be jorratzen doguz eta gustora gainera”.

#### [Gernika Gogoratuz Elkartea](#)

Elkarteak Euskal Herritik kanpo ere egin izan ditu ikerkuntza saioak. “Gehienbat ikerketa akademikotik egiten diren ekintzetara eta ekimen sozialera dago bideratuta. Guri memoria eta bakea interesatzen zaigu. Baita kasu konkretuak zelan aztertu daitezken. Gure zentroaren

**SAN JUAN**

Loteria administrazioa 2.zbkia



*Trusquieta*  
bitxiak - zilarra- erlojuak



 Ortopedia  
**GUERNICA**

San Juan, 2 • Tel. 94 625 54 88  
E-mail: [guernica@ortopedia-guernica.com](mailto:guernica@ortopedia-guernica.com)  
Web: [www.ortopedia-guernica.com](http://www.ortopedia-guernica.com)

*Funeraria - Tanatoria*  
**IZARO**

Hileta zerbitzuak

GERNIKA: 94 625 83 23



ekimenak beti eduki dau zentzu unibertsal bat. Urte askotan egon gara Guatemala eta Kolonian lanean eta Europan be ikerketa proiektu handi bat zabaldu dogu." "Ez gara gerrak ikusten joan, ekarpenak egitera eta ikastera baizik. Erabaki genuen leku horietara joatea bertako konfliktoen gaiak interesanteak iruditzen zitzaigulako. Ez irtenbide bat ematera. Hemen ikasitako azaltzen dogu eta bertan ikusitakoa gure lanera ekarri. Hartu emana izaten da. Lan diskretua da. Zelan lan egiten duten ikustera joaten gara. Sortzen zaizkien zailtasunak ikusteko, aztertzeko eta osten horiek ekiditeko. Ez soluzioak emoteko".

### Izan, egon eta gogoratu

Hausnarketa lana egiterako orduan hiru aditz erabiltzen dabez Oiangurenen esanetan; izan, egon eta gogoratu. "Hiru aditz horren inguruan egiten ditugun hausnarketak gure jardunaldi eta bestelako ekintzetan irudikatzen dira. Gernikari lotuta indar handia daukaten hiru aditz dira. Izan aditzaz ari garenean Gernika identitatearen sinbolo potente bat dela esaten ari gara. Herrian ganera lau sinbolo batzen diraz; identitatearena, askatasunarena, bakearen eta berradiskidetzearena".

"Gogoratu aditzaz ari garenean gure ustetan desberdina da gogoratzea eta memoria. Gauza bat da ekimen konkretu bat gogoratzea baina ekimen hori gogoratu eta gero zer? Urtez urte gogoratzen dogu zer gertatu zan Gernika-Lumon baina gogoratzeaz aparte gertatu zenarekin zerbait egiten saiatzen gara. Gogoratze hori praktikoa izan dadin gaur egunean". "Orain "egin" aditza zer nolako garrantzitsua den ari gara pentsatzen. Gure nortasuna gure iraganarekin eta orainarekin lotuta dagoela esan da orain arte. Baina gure gaitasunak egiten gaitu. Esate baterako kanpora goazenen zer garen azaltzeko ekintzen bidez egingo dugu".

**ARIATZA**

• Kanpo eta barruko landareak  
• Lorategiko akzesorioak  
• Lore sortak, zentroak eta korook  
• Barnealdean,

Ariatza ouzoa, z/g

**TIPS@**  **biharko bizkortasuna gaur**

**ZERBITZUAK**  
> Nazionala > Probintziala > Eskualdeetakoak > Irleetaoak > Portugal > Egunerokoak > Egunean bertan > Premiazko zerbitzuak > 10 Ordu > Zerbitzu masiboak "kanpainak"

TIPSA  
GARRAIO INTEGRALA PAKETERIAN  
GOMINARRA 232

**TXAPORTA**  
zerbitzu gunea

 autogarriketa  
tailer mekanikoa  
denda

**LECEAGA, S.A.**

**HORMIGOAZKO AURREFABRIKATUAK**  
Bloke, bobedila, tubo, poste, ladrilu akustikoak, ...  
Hormigoazko ladriluak: "Ladrignon", LADRILAIDA (marka berria)



### Memoria eta Artea

Lan egiterako orduan artea memoriarekin lotuta doan espresio bide bat bezala ulertzen du Gernika Gogoratuz elkarteko zuzendariak. "Artea memoria praktikotasunean jartzeko tresna eta espresio modu bat moduen ulertzen dogu. Memoria Gernikan gertatutakoa kontatzeko. Artearen erabilgarritasunaren adibiderik garbiena Picassoren Guernica da". "Memoria ez da bakarrik gogoratzeko, baizik eta aldatzeko, zerbait berria egiteko, praktikoa izateko. Ez da liburuetan geratu behar soilik. Zerbait berria egitea orain arte ikusi doguzen gaiak beste modu baten ikusteko aukera egitea da".

"Ez dogu irtenbiderik emango, irtenbideak bidean aurkitu behar dira. Gernikaren inguruko memoria praktiko bilakatu behar dugu beste Gernika batzuk gerta ez daitezen. Iragana iraganean utzi. Erdarazko esaldiak dion lez "El pasado tiene que estar presente, pero no se puede hacer del pasado presente".

### Gernikako bonbardaketa; gertaeratik mitora

Urteak joan ahala Gernikako bonbardaketa bezalako gertaerak mito bezala geratu direla uste dau Oiangurennek. "Ezin ditugu mitoak eraiki. Gernika mito bat izan da. Batzuetan mitologiak ez dau laguntzen.

Azkenean pisu bat bezala bizitzen da eta bizitza ezin da bizi konpondu ezin dan pisu handi bat bezala. Horregatik geure ekimena, pertsonala eta taldearekikoa oso garrantzitsua da".

"Gai delikatua da mitoak ukitzea. Ezin gara mitoen jabe bihurtu. Gizakien historiaren azterketa eginda zorionez badakigu zein den mitologiaren garrantzia eta esanahia. Dana dala gaur egun analisi kritikoa erabili beharra dogu".

"Gernika azkenien ikur horrekin geratu da. Ikur horrek ezin ditu beste errealtate batzuk eztxali. Alderantziz baino. Gernikak



# INTELEK

**ORDENAGAILUEN SALMENTA ETA KONPONKETA  
ENPRESA ETA SAREEN MANTENUA  
MUGIKORREN LIBERAZIOAK**

horren berri emoteko ardurie deko. Eta orain zoritxarrez beste Gernika asko dagoz munduan. Gernika moduko leku sibolikoek duten potentzialtasunak leku arrunten potentzialtasuna estaltzera eramán du". "Ikur bihurtze horrek beste herri bonbardatu asko itzalean utzi dauz. Adibidez Gernika ez zen izan bonbarduta izan zen lehen herria. Baina lehenengo izan zala moduan geratu da. Euskal Herriak kanpora be lehenago bonbardatutako lurraldeak Marokoko iparraldean eta Nikaraguan egon zirian".

### Bakea

Bakegintzan norbanakoak bere ardurak dituela deritzo Oiangurennek. "Bakea esaten dogunean bakoitza nor den jakiteaz eta guztion artean elkarbizitza bat eramateaz ari gara. Oinarrizko balio batzuk errespetatuz. Balio horiek bizitzaren inguruan daude".

"Bakea ez da hasten tratatu bat sinatzean. Gauza bat da espazio desberdinak egotea. Bakoitzak bere erantzukizunak hartu behar ditu bere espazioan. Ikusi behar dana da nor garen, non nagoen eta zein dan eragiten doten erlazioak besteekiko. Hortik hasi beharra dago".

### Atzoko pausoetatik, biharko pausoetara

Egungo egoeraz pozik agertzen da Oianguren baina argi dauka asko dagoela egiteko. "Azken aldian emandako pausoak handiak direla deritzot baina uste dot pauso gehiago eman behar direla. ETAK armak entregatzea pauso handi bat izan da. Dena den garrantzitsuak dira bakegintzan planteatzen diren hiru gai: egia, justizia eta konponketa. Zer gertatu dan argitu eta egin den minaren



errekonozimendua egin beharra dago arazoa gainditzeko. Hori itzelezko pausoa da pertsona baten bizitzan. Ez bakarrik arlo horretan".

"Guzti horrek erantzukizun pedagogiko handi bat dauka. Norbanakoa tesitura baten jarri behar da eta egin daben horrek ekarritako ondorioak ikusi behar ditu. Txarto egon zela onartzea pauso handi bat da. Horren alde zerbait egitea eta bideratzea garrantzitsua da".

### Gernikako kultur eta bakearen nazioarteko jardunaldiek 22 urte

Aurten antolatuta dituzten jardunaldietan gonbidapen berezien presentziaz

gozatzeo gonbitea luzatzen dau. "Urte honetako gure jardunaldiaren gaia: Memoriaren zentsua eta denbora da. Hemen planteatzen dogun galderarik garrantzitsuena da "zertarako gogoratu Gernika?". Goiz eta arratsaldez egongo dan programa akademiko bat da. Urte honetan etorri diren gonbidatuen artean mundu mailan garrantzitsuenak dira: Juan Gutiérrez, Johan Galtung eta John Paul Lederach".

"Gonbidatuek gaiaren arabera aurkezten dabez bere txostenak. Gero denbora luze bat eukiten dogu parte hartzen daben pertsonekin elkarrizketak sortzeko. Bertaratutakoekin hausnarketa saio bat egiteko beste ordu beteko aukera emoten dogu".

**AMUTIO**  
*Lurrindegia - Drogeria*

- Oparitarako artikuluak
- Mendi eta hondartzarako kapelak

**Algelek, s.l.**  
**Material Elektrikoa**

Juan Kallzada, 69  
Tfno./ Fax: 94 625 63 79  
Móvil: 907 33 20 42  
48300 GERNIKA-LUMO

Eraikuntzarako materiala  
**Urain**

Erakusketa  
Carlos Gangoiti, 44-behea  
94 625 78 04

Biltegia  
Amunaga, 2  
94 624 00 14

**iñigo**  
dekorazioa

**TAPIZERIAK ETA DEKORAZIOA**

DENDA  
Artekale, 7  
Tel. 94 625 46 37

ERAKUSKETA  
Iñigo Lopez de Haro  
Món. 649 781 704